



“XXXXX” URRUTIKO BATXILERGOKO INSTITUTUAK IKASLEEN DATU PERTSONALEI BURUZKO ZENBAIT ALDERDIREN GAINEAN EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKO IRIZPENA.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2010eko martxoaren 10ean “XXXXX” Urrutiko Batxilergoko Institutuko zuzendariak izenpetutako kontsulta-idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki horren bidez, goian aipatzen den gaiari buruzko txostena eskatzen zen.

BIGARRENA: Kontsulta-idazkian honakoa adierazi zuen:

- 1. Unibertsitatez kanpoko ikastetxeen antolakuntza- eta jarduera-araudia (AJA) egiteko administrazioak helarazi digun ereduak dio irakasleek ikasleei buruzko informazio akademiko guztia eman behar dietela gurasoei. Gure kasuan, ikasle gehienek 18-22 urte bitartean dituzte eta familiarekin bizi dira. Beraz, nola jokatu beharko genuke seme-alaben eskola-errendimendua jakin nahi duten gurasoak hartzen ditugunean?*
- 2. Horretaz gain, Antolakuntza- eta jarduera-araudiak dio bai ikasleek bai ikasleen legezko ordezkariak kalifikazioaren oinarrian dauden froga eta ariketa guztien berri izan behar dutela.*
- 3. Bestalde, kudeaketarako informazio sisteman ikasle guztien datuak daude —helbidea, jaiotze-data, telefonoa ...— eta ikastetxeko irakasle guztiek dute sarbidea sisteman. Puntu honetan, datuak babesteko protokoloaren bat ezarri beharko genuke?*
- 4. Azkenik, eskatu nahi dizugu ikastetxeetako datu-babesari buruzko gai hauei buruzko informazioa: artxibategien tratamendua, espedienteak, ikasle presoak...”*

HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea.”



Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio XXXXX Institutuak egin digun galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Arabako urrutiko batxilergoko institutu bat da kontsulta-egilea eta hiru galdera zehatz egitea gain, informazio eskaera bat ere egin du ikastetxeetako datu-babesari buruz.

Lehengo galdera da argitzea ea zein den seme-alaben eskola-errendimenduaren berri jakitera datozen gurasoak hartzeko erarik egokiena, kontuan hartuta ikasleen gehiengoak 18 eta 22 urte bitartean dituela.

Beraz, hemen planteatzen dena da ea izaera akademikoko zein informazio jakinarazi ahal zaien ikasle horien gurasoei. Datu-komunikazioa Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren —aurrerantzean DBLO— 3 i) artikulua definitzen duen tratamendu bat da: *“interesduna ez den beste pertsona bati datuen berri ematea.”*

Bestalde, DBLOren 6.1 artikulua datu pertsonalak tratatu ahal izateko, adostasunaren printzipioa finkatu zuen izaera orokorrekin. Hona hemen artikulua xedatzen duena: *“Izaera pertsonaleko datuak tratatzeko, ukituaren zalantzarik gabeko adostatuna beharko da, salbu eta legeak beste zerbait xedatzen duenean.”*

Horretaz gain, DBLOren 11. artikulua beste hau xedatzen du datu-lagapenak direla eta: *“Tratamenduaren objektu diren izaera pertsonaleko datuak hirugarren bati komunika dakizkioke soil-soilik datu-lagatzailearen eta datu-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzeneko lotura duten xedeak betetzeko; interesdunak aurretiaz horren inguruko adostasuna eman beharko du.”*

Arau orokorrak, beraz, datuen titularraren adostasun eskatzen du datuak komunikatzeko. Baina, era berean, arau orokor hori urratu egiten du 11.2 artikuluan jasotako kasuetan. Aztertzen ari garen kasuan, bereziki aipatzekoa da DBLOren 11.2 a) artikuluan jasotako salbuespena. Hona hemen: *“Legeak baimentzen duenean lagapena.”*

Gure ustez Kode Zibila da seme-alaben datu akademikoak gurasoei komunikatzeko gaikuntza ematen duen legea. Hona hemen Kode Zibilaren 154. artikulua xedatzen duena guraso-agintearen edukiari buruz:

“Ahal horrek hurrengo eginbehar eta ahalmenak baitaratzen ditu:

Seme-alabak jagotea, eurokin izatea, horiei mantenua ematea, seme-alabok hezteak, eta, berebat, seme-alaba horiei oso-osoko heziketa ematea.

Seme-alabak ordezkatzeko eta euren ondasunak administratzeko.”



Seme-alabak jagotea eta hezte gurasoen beharrak dira eta legeko obligazioa. Obligazio hori bete behar badute, seme-alaben datu akademikoak jakin behar dituzte. Betebehar horrek guraso-agintea iraungi bitartean dirau. Guraso-agintea da legeak gurasoei seme-alaba ez-emantzipatuekiko esleitzen dizkien betebehar eta eskubideen multzoa da. Guraso-agintea lege desagertzen denean, seme-alabekiko betebehar eta eskubide multzoa ere bertan behera geratzen da, eta, ondorioz, ezinezkoa egiten da seme-alaben datu akademikoak komunitatzea seme-alaben adostasunik gabe.

Aztertzen badugu nola dagoen araututa guraso-agintearen figura kode zibilean, ikusiko dugu guraso-agintea iraungitzen dela semea edo alaba emantzipatzen denean; hala xedatzen du 169.2 artikulua. Kode zibileko 314.1 artikulua xedatzen du emantzipazioa adinez nagusi egitean eskuratzen dela. Beraz, arau horiek aintzat hartuz gero, seme-alabak adinez nagusiak badira, gurasoek ezin dituzte hauen datu akademikorik eskuratu seme-alaben baimenik gabe.

Tutoreei buruz berdina esan behar dugu; izan ere, gurasoen antzeko lege gaikuntza baitute. Ikusi 269. artikulua:

“Tutoreari dagokio tutoretzapekoa jagotea, eta, bereziki:

Tutoretzapekoari mantenua ematea.

Adingabea hezi eta horri oso-osoko heziketa ematea.

Tutoretzapekoak gaitasuna eskura edo berreskura dezan eta tutoretzapeko hori hobeto gizartera dadin eragitea.

Urtero-urtero, epaileari informazioa ematea adingabe edo ezgaituaren egoerari buruz, eta administrazioaren urteko kontu-arrazoiak ematea.”

DBLO garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren balioa aitortzen die adin txikikoen adostasunari. Hona hemen 13.1 artikulua xedatzen duena:

“Hamalau urtetik gorako datuak tratatzeko aukera egongo da, horretarako baimena ematen badute, non eta legeak ez duen eskatzen, datu horiek utzi ahal izateko, guraso-agintea dutenek edo tutoretza dutenek laguntzea. Hamalau urtetik beherako kasuan, gurasoen edo tutoreen oniritzia behar izango da.”

Arau horrek adostasuna adierazteko aukera ematen die hamalau urtetik gorakoei, non eta legeak ez duen eskatzen, datu horiek utzi ahal izateko, guraso-agintea dutenek edo tutoretza dutenek laguntzea. Gure ustez, datu horiek utzi ahal izateko, guraso-agintea dutenek edo tutoretza dutenek laguntzea ezinbestekoa da seme-alaben hezkuntzaren kontrola tartean dagoenean. Eta hezkuntza guraso-agintearen eginkizunetako bat da.

Beraz, arau orokor gisa esan dezakegu ikasleak adin txikikoak badira, gurasoek eta tutoreek eskubidea dutela institutuari eskatzeko seme-alaben datu akademikoak. Adinez nagusiak badira, ordea, datuak lagatzeko seme-alaben adostasuna behar da



nahitaez. Doktrinak ere horixe bera esaten du. Esate baterako, hona Antonio Troncoso Reigadak esandakoa artikuluko honetan: *La publicación de datos de profesores y alumnos y la privacidad personal. Acerca de la protección de datos en las Universidades* (Revista de Derecho Político aldizkariaren 67. zk., 2006, orrialdeak: 79-163).

“Beraz, adinez nagusiak diren seme-alaben kasuan, espediente akademikoetako datuak datuen titularrek baino ezingo dituzte atzitu. Datuak atzitzeko eskubidea eskubide guztiz pertsonala da, eta horrek zaildu egiten du beste pertsona batek atzitzea datuak, titularra ezgaitasun-egoeran dagoen kasuetan izan ezik. Esan behar da gurasoek ez dutela adinez nagusiak diren seme-alaben espediente akademikoak atzitzeko eskubiderik, seme-alaben adostasunik gabe.” Hona hemen idazleak esandakoa paragrafo horri gehitutako ohar batean: “Hori hala izateak egoera latzak ere ekar ditzake, esate baterako, gurasoek seme-alaben unibertsitateko matrikula ordaintzea eta seme-alabek kalifikazioak faltsutzea, eta gurasoek kalifikazioak ezin jakin seme-alabek adostasunik adierazi ezean. Konponbide bat izan daiteke gurasoek adinez nagusiak diren seme-alaben matrikula ordaintzea kalifikazioa jakiteko adostasunaren truke, hartara, gurasoek seme-alaben espediente akademikoetarako sarbidea izanez.”

Aipamena sartu badugu ere, ez dugu esan nahi hor aipatzen den konponbidea hartu behar denik. Bakar-bakarrik adierazi nahi dugu datu-babesaren arloko agintaritzek badutela arazo horren berri, eta indarrean dagoen lege-erregimenak ez duela malgutasunik gai horrekiko.

II

Bigarren galdera legezko ordezkariari buruz da. Kontuan hartuta, bai ikasleek bai ikasleen legezko ordezkariak kalifikazioaren oinarrian dauden frogak eta ariketa guztien berri izan behar dutela, kontsulta-egileak eskatzen du argitzeko zertan datzan legezko ordezkariaren figurak.

Galderari erantzuteko, berriro heldu behar diogu adinaren faktoreari, adin txikikoen legezko ordezkariak guraso-agintze duten gurasoei esleitzen baitzaie. Seme-alaben legezko ordezkariak Kode Zibilaren 162. eta 163. artikuluetan dago xedatuta:

“162. artikulua.

Gurasoek guraso-ahala badute, euren seme-alaben gaineko legezko ordezkariak ere badute izan, azken horiek adingabeko emantzipatu gabeak direnean.

Salbuetsirik daude honakoak:

Nortasun-eskubideen inguruko egintzak, edo, legeen arabera eta semeak edo alabak duen heldutasunaren arabera, seme edo alaba horrek bere kabuz buru ditzakeenak.



Gurasoen eta seme-alaben arteko interes-gatazka eragiten duten egintzak.

Gurasoen administrazioetik kanpo utzitako ondasunen gain gauza daitezkeen egintzak.

Kontratu batzuek semea edo alaba behartzen badute prestazio pertsonalak egitera, eta seme edo alaba horrek behar besteko zentzutasuna badu, kontratuok egiteko beharrezkoa da semearen edo alabaren aurretiazko adostasuna izatea, 158. artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe.

163. artikulua.

Gai zehatz baten inguruan, aita eta amaren interesa euren seme-alaba emantzipatu gabeek dutenaren aurkakoa bada, epaileak seme-alaba horientzat defendatzailea izendatuko du, defendatzaile horrek epaiketari nahiz epaiketarik kanpo seme-alabok ordezkari ditzan. Era berean, epaileak izendapen hori egingo du, gurasoen betebeharra seme edo alaba adingabeko emantzipatuaren gaitasuna osatzea izanik, euren interesa seme edo alaba horrek izan dezakeenaren aurkakoa denean.

Interes-gatazka guraso batekin bakarrik sortzen bada, lege-aginduz beste gurasoari dagokio adingabea ordezkari edo beraren gaitasuna osatzea, eta horretarako ez da izendapen berezirik behar."

Gurasoek guraso-ahala badute, euren seme-alaben gaineko legezko ordezkari izate ere badute, azken horiek adingabeko emantzipatu gabeak direnean. Tutoreen kasuan ere berdin gertatzen da adin txikikoak badituzte tutelapean, Kode Zibileko 267. artikulua tutelapeko adin txikikoen ordezkari izateari esleitzen baitie.

Adinez nagusien ordezkari izateari dagokionez, borondatezko ordezkari kasu bat dela esan daiteke, administrazio zuzenbidearen esparruan eratua. Beraz, administrazio zuzenbidearen esparruko kontu bat da izatez eta ez hainbeste datuak babesteko oinarritzeko eskubidearen esparrukoa. Hala ere, eta laguntzeko asmo hutsez, borondatezko ordezkari arautzen duten legea aipatu nahi ditugu: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 32. artikulua. Hona hemen xedatzen duena:

"1. Jarduteko gaitasuna duten interesdunek ordezkari bidez jardun dezakete. Administrazioaren jarduna ordezkariarekin gauzatuko da, interesdunak espresuki aurkakorik adierazten ez badu.

2. Jarduteko gaitasuna duten guztiak izan daitezke besteren ordezkari herri-administrazioekiko.

3. Beste baten izenean eskaerak egiteko, errekursoak aurkezteko, akzioetan atzera egiteko edo eskubideei uko egiteko, bi modutan egiazta daiteke ordezkariaren: zuzenbidean balio duen eta sinesgarritasunez jasota utziko duen edozein bidez baliatuz; edo, bestela interesduna bera bertaratu eta ordezkari izan den esanez. Izapidetara hutsa diren egintza eta kudeaketak, berriz, inolako egiaztapenik gabe egin ditzake ordezkariak.

4. Ordezkari egiaztatu ez edo behar bezala egiaztatu gabe izanda ere, egintza gauzatatzen jo daiteke, baldin eta ezarritako epean ordezkari izateko.



*egiaztatu, edo akatsa zuzentzen bada. Epea eman beharra du administrazio-
organoak, eta hamar egunekoa izango da, edo luzeagoa, kasuaren
gorabeheretik hala eskatzen badute.”*

Ikusten dugunez, administrazio zuzenbidean ordezkari-tza aurreikusita dago izapide-
egintzetarako. Eta honakoetarako, ordezkari-tza behar bezala egiaztatu behar da:
eskabideak egiteko, errekurtsioak aurkezteko, akzioetan atzera egiteko eta
eskubideei uko egiteko.

Eskabideak direla eta, doktrinak dio “ordezkari-tza egiaztatu egin behar dela,
eskabide bat egin nahi bada. Administrazio eta Prozedura Legearen 68. artikulua-
ren arabera, eta 70. artikulua-ekin bat, eskabideaz ari garenean, prozedura bat has-
tea dakarren egintzaz ari gara (Comentarios a la Ley de Régimen Jurídico de las
Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, Thomson-
Cívitas argitaletxea, 2003. Lehengo alea, 947. orrialdea).

Prozedurak hasten dituzten eskabideetan eskatu beharko da ordezkari-tza
egiaztatze-ko. Ordezkari-tza egiaztatzea nahitaezko betekizuna da, eta betetze-
ko eskatu ezean, figura hori edukirik gabe geratuko litzateke.

Edozelan ere, praktika edo jardunbide egokia izan daiteke jasota geratze-
a datu-
atzipena ikaslearen ordezkariaren bitartez egin dela, eta ordezkaria dela ere
egiaztatu egin beharko litzateke frogagiri-
en baten bidez, bai eta ordezkariaren
identitate-
a ere.

III

Hirugarren galdera alderdi honen gainekoa da: kudeaketarako informazio sisteman
ikasle guztien datuak daudenez —helbidea, jaiotze-data, telefonoa ...—, eta
ikastetxe-ko irakasle guztiek dutenez sarbidea sisteman, ea puntu horretan, datuak
babesteko protokolo-
ren bat ezarri beharko luketen.

Galdera datuen kalitatearen printzipioarekin lotuta dago. Printzipio hori DBLOren 4.1
artikulu-
an xedatuta dago:

*“Datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu
horiek egokiak, bereizleak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko
eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko.”*

DBLO garatzeko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007
Errege Dekretuak ere xedatzen du kalitatearen printzipioa 8. artikuluan. Hona
hemen:

“8. artikulua. Datuen kalitateari buruzko printzipioak.

*1. Datu pertsonalak modu leian eta zilegi batean tratatu beharko dira.
Debekatuta dago iruzurraren bidez edo bitarteko desleialak edo bidegabeak
erabiliz datuak biltzea.*



2. Datu pertsonalak biltzeko, tratamenduaren arduradunak horretarako helburu zehatzak eta bidezkoak izan beharko ditu, bestela ezingo baititu bildu.

3. Tratamenduko datu pertsonalak ezin izango dira erabili datuak biltzeko helburuekin bateragarriak ez diren xedeetarako.

4. Tratatu ahal izateko, datuak hasiera bateko helburu zehatzak eta bidezkoak lortzeko egokiak, egoerari dagozkionak eta neurrikoak izan beharko dira, ez gehiegizkoak.

5. Datu pertsonalak zehatzak eta eguneratutakoak izango dira, eta tartean denaren gaur egungo benetako egoeraren berri eman beharko dute. Datuak zuzenean tartean denari eskatzen baldin bazaizkio, datu horiek zehatzak direla joko da.

Tratatu beharreko datu pertsonalak ez balira zehatzak izango, osorik edo zati batean, edo behar bezala osatuta ez baleude, ezabatu eta ordezkatu egingo lirатеke, ofizioz, eta datu zuzenak edo osatuak jarriko lirатеke aurrekoen ordezt, eta horretarako, hamar eguneko epea egongo litzateke, akatsaren berri izan denetik zenbatzen hasita; salbuespen bakarra fitxategi horri dagokion legeriak hori egiteko beste prozedura edo epe bat zehaztuta izatea izango da.

Datuen berri aldezt aurretik jaso bada, fitxategiaren edo tratamenduaren arduradunak lagapendunari egindako zuzenketaren edo ezereztearen berri eman beharko dio, hamar eguneko epean, betiere lagapenduna ezaguna bada.

Jakinarazpena jasotzen denetik hamar eguneko epean, datuen tratamendua mantentzen duen lagapendunak jakinarazi zaion zuzenketa edo ezerezte burutu beharko du.

Datu pertsonalak era horretan eguneratuz gero, interesatuari ez zaio ezer ere jakinarazi beharko, baina interesatuek eskubidea izango dute abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aitortzen zaizkien eskubideez baliatzeko.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa hala izanik ere, kontuan izan beharko dira erregelamendu honen III. tituluan tartean direnei aitortzen zaizkien ahalmenak.

6. Datu pertsonalak ezabatu egingo dira, horiek jasotzeko edo erregistratzeko zegoen helbururako beharrezkoak izateari uzten diotenean.

Dena den, datu horiek denbora tarte batean gordetzeko aukera egongo da, hain zuzen ere harreman edo obligazio juridikoren batengatik, kontraturen bat betearazteagatik edo interesatuak eskatuta kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeagatik erantzukizunen bat eskatzeko aukera baldin badago.

Aurreko paragrafoetan aipaturiko epea bete eta gero, datuak gordetzeko modu bakarra horiek banatzea izango da, baina kontuan izan beharko da abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta erregelamendu honetan aurreikusten den blokeo-obligazioa.

7. Datu pertsonalak tratatzerakoan, horietara iristeko eskubidea bermatu beharko da, datu horiek ezereztu beharrekoak ez diren artean."

Guri dagozkigun ondorioetarako, goiko artikulua 4. idatz-zatian aipatzen den garrantziaren printzipioari heldu behar diogu segidan. Hoan hemen doktrinak zer



dioen datuak garrantzitsuak izateari buruz:

“Erregelamenduan datuen kalitatearen printzipioa zertan den aztertzen segituz, azpimarratu nahi dugu kalitatearen printzipioak baduela zer ikusia proportzionaltasunaren printzipioarekin. Kalitatearen printzipioak dio datuak ezin direla bildu, tratatzeko ez bada, eta kontuan hartu behar dela zertarako bildu diren, hau da, datuek egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak izan behar dutela bilketaren helburu edo eremu zehatz, legítimo eta esplizituekiko. Irizpide hori Erregelamenduaren 8. artikuluko laugarren idatz-zatian dago jasota. DBLOn, ordea, 4. artikuluko lehenengoa da.

Datu egokiaren kontzeptua ulertzeko, helburuaren kontzeptua ere aztertu behar da. Beste era batera esanda, datuak biltzen dira helburu batekin; beraz, gero ezin dira erabili hasierako helburuarekin bateraezina den beste batekin. Hala ere, datua helburu historikoekin, zientifikoekin, estatistikoekin ... erabiltzea ez da bateraezintzat jotzen.

Aurreko guztia kontuan hartuta, atera dezakegun ondorioa da helburua ez dela bakarrik garrantzitsua datu-bilketaren unean, gerora ere badela baizik; ezen datuek fitxategia eratzeke aurreikusi zen erabilera baino ezin baitute izan, eta ez beste bat, eta berdin dio fitxategiak titulartasun publikokoak ala pribatukoak izan. Horregatik, oso garrantzitsua da datuak eta datu-bilketa egiteko helburuak aplikatzea, oinarrizko printzipio bat delako datu pertsonalak babesteko esparruan, bai eta lagungarria delako ere gai honek praktikan dituen arazoak konpontzen laguntzeko.

Kalitatearen printzipioak beste printzipioa bat ere hartzen du barruan: datua garrantzitsua izatea eta datu pertsonalak neurriz erabiltzea. Horren arabera, datu garrantzitsua da pertsona jakin bat lotuta dagoen datua, hain da garrantzitsua datua.

Datuak garrantzitsuak izan behar dutelako printzipioa datu-bilketa guztietarako balio du, eta datu-bilketaren unean nahiz datu-tratamenduaren geroko edozein unetan bete beharrekoa da, alde batera utzita zein modalitate erabili den. Horretaz gain, datuak garrantzitsuak izan behar dutelako printzipioak arduradunari betebeharrak bat esleitzen dio, eta da bildu beharreko datuak nahitaezkoa izan behar direla benetan datu horiek erabili behar dituenak finkatu dituen helburuak erdiesteko” (Protección de Datos. Comentarios al Reglamento. Juan Zabía de la Mata y otros. Lex Nova argitaletxea 1. argitaraldia. 2008ko maiatza. 143 eta 144. orrialdeak).

Aipatu dugun araudia ikusita, esan daiteke gehiegizko tratamendu bat dela irakasle guztiek izatea ikasle guztien datu administratiboak atzitzeko aukera, eta nahikoa izango litzatekeela irakasle bakoitzak bere eginkizunak gauzatzeko beha dituen datuak bakarrik, eta ez besterik, atzitu ahal izatea. Ez da pentsatu behar datuen kalitatearen printzipioaren xedea mugak jartzea denik; aitzitik, pentsatu behar da arrazionaltasun eta proportzionaltasun irizpide bat dela, informazioa erabiltzean



lagungarria izateko. Beraz, ezin da onartu irakasle guztiek izatea ikasle guztien datuak atzitzeko aukera. Are gehiago, ezin da onartu irakasle bakoitzak bere ikasle guzti-guztien datu guztietarako sarbidea izatea. Izan ere, haien lanerako nahitaezkoak diren datuak baino ezingo dituzte atzitu irakasleek. Zentzu horretan, jardunbide egokia izan daiteke ikasleen datu pertsonalak atzitzeko eskabide bat aurkeztea, idatziz, eta bertan argi eta garbi arrazoitu zertarako behar dituen.

Bestalde, irakasleek zuhurtziaz jokatu beharko dute atzitzen duten informazioarekiko, obligazio hori dutelako, DBLOren 10. artikulua xedatzen duenaren arabera. Hona hemen tratamenduan parte hartzen dutenen sekretu gorde beharraz dioena:

“Fitxategiaren arduradunak eta izaera pertsonaleko datuen tratamenduaren edozein fasetan parte hartzen dutenek lanbide-sekretua izan behar dute nahitaez datu horien gainean, eta datu horiek gordetzeko eginbeharra ere izango dute. Betebehar horiek bere horretan iraungo dute, nahiz eta fitxategiaren titularrekin edo, hala denean, arduradunarekin dituzten harremanak amaituta izan.”

Beraz, esan beharra dugu institutuak neurriak hartu beharko dituela —teknikoak, antolaketakoak edo bietakoak— irakasleek ikasleen datu pertsonalak atzitzen dituztenean, atzipenek kalitatearen printzipioa bete dezaten, aurreko paragrafoetan azaldutakoaren arabera.

IV

Azkenik, kontsulta-idazkiak informazio-eskaera bat egiten du, ikastetxeetako datu-babesari buruz. Behean ematen dugu horri buruzko informazioa labur-labur, ohiko irizpenen xedea ez delako azterlan zehatzak egitea.

Horregatik, eta laguntzeko asmoz, "XXXXX" Urrutiko Batxilergoko Institutuak kontuan hartu beharreko hainbat alderdi azpimarratu nahi ditugu.

Hasteko, gogora ekarri behar dugu institutua Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpe dagon ikastetxe publikoa dela eta ikastetxeak kudeatzen dituen datu pertsonalak fitxategi publiko batean jasota egon behar dutela. Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Erregistroan begiratu dugu eta ikusi dugu badagoela Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak deklaraturako fitxategi bat honako izenarekin: “Ikastetxeen fitxategi automatizatua”, eta fitxategiaren helburua dela ikastetxeetako langile, zerbitzu eta programa propioak kudeatzeko behar diren datuak eskuragarri izatea. Fitxategiaren arduraduna Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila da eta bere ardura da erabakitzea zein den fitxategian dauden datuen helburua, edukia, erabilera eta tratamendua.

Edozelan ere, ikastetxeak DBLOren 4., 5., 6., 7., 9., 10. eta 11. artikuluetan jasotako ondoko oinarritzko printzipioen arabera tratatu beharko ditu datuak: kalitatearen printzipioa (irizpen honetan azaldu dugu), informazioa (datu-bilketan informazio-



klausula gehitzea), adostasuna (datuen titularren adostasuna eskatzea izaera orokorrarekin, eta behar bezala zaintzea bereziki babestutako datuak. Zazpigarren artikuluan jasota daude), datuen segurtasuna eta konfidentzialtasuna edo sekretu gorde beharra.

ONDORIOA

Lehenengoa. Adin txikikoen kasuan, gurasoek edo tutoreek institutuari seme-alaben kalifikazio akademikoak eskatzeko eskubidea izango dute. Adinez nagusiak badira, seme-alaben adostasuna beharko da.

Bigarrena. Adin txikiko seme-alaben ordezkaritza guraso-agintzea duten gurasoen dute legez. Seme-alabak adinez nagusiak badira, borondatezko ordezkaritzaren arauak bete beharko dira. Irizpen honetan aipatu ditugu zein diren arauak.

Hirugarrena. Institutuak neurriak hartu beharko ditu —teknikoak, antolaketakoak edo bietakoak— irakasleek ikasleen datu pertsonalak atzitzen dituztenean, atzipenek kalitatearen printzipioa bete dezaten, eta irakasleek haiek eginkizunetarako behar dituzten datuak baino atzitu ez ditzaten.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko martxoaren 25ean